itzulpena: Hiromi Yoshida

Chuya Nakahara

Munduko Poesia Kaierak
MPK

Chuya Nakahara

itzulpena: Hiromi Yoshida

literatura Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.eus/ebook

© Chuya Nakahara
© itzulpenarena: Hiromi Yoshida
© edizio honena: Susa

2017ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Bilduma honen borondatea hasieratik izan da munduko poeta apartekoenen euskaratzea, mundua zentzu zabalenean ulertuta. Eginahal horretan beste urrats bat dugu honakoa, Asiako poeta baten lehen itzulpena egin baitu Hiromi Yoshida irakasle eta itzultzaileak.

Yamaguchin jaioa 1907an, ez zen poeta loriatua izan bizirik zela, baina gaur egun bere garaiko poeta japoniar handienetakoa dugu. Garaiko onarpen faltagatik eta gazte hil izateagatik —30 urte zituela meningitis baten ondorioz—, poeta malditoen kategorian sartu izan dute batzuek. Malditismo horrekin lotu daiteke halaber Nakahararen poemetan zehar aski presente dagoen alkoholaren eta parrandaren gaia, *Udako gaua hirian* alean ikus dezakegun moduan. Bohemiarekiko halako jaidura sumatzen da momentu horietan, ahots poetikoak “beti-kontra hutsa” izatea aitortzen duenean esaterako. Ez da harritzekoa, beraz, Nakaharak poeta sinbolista eta surrealistak miretsi izana, ezagun denez, haiek ere ez baitziren berehalakoan onartuak izan garaiko akademian. Charles Baudelaire eta Paul Verlaine agertzen dira aipatuak poe-

metan, Kobayashi Hideo kritikariaren bidez ezagutu zituenak Rimbaud eta beste zenbaiten artean. Sinbolismoaren lerro hori agerikoa da Nakaharak sarri erabiltzen duen hizkuntza poetikoan, termino urrunen arteko elkartze eta irudi harrigarriekin ("aingeruak saskibaloian jostari"). Horietaz landa, azpimarratzekoa da halaber Takahashi Shinkichi poeta dadaistarengandik jasotako eragina. Hari jarraiki utzi omen zion tanka poesia mota idazteari eta hasi zen bertso librean eskribitzen. Nolanahi den, poesia japoniar tradizionalaren arrastoa ere nabari da bere poemetan. Alde batetik, poema batzuetan (*Gerraren Kaleko erosta-kanta* poemako IV zatia, *Elurpeko arratsean*) 5-7 silabako lerroak erabiltzen ditu, hala tanka nola haikuan erabiltzen den neurria alegia. Bestetik, haren poemetarik hainbat (*Choomonkyooko arroila neguan*) postal modukoak ditugu, istant baten erretratu poetiko labur-zehatzak, eta nahiz eta ez egon emanak neurri klasikoetan, poesia tradizional horren usaina aditzen da berehala. Deigarria da halaber poemetan azaltzen den denboraren kontzientzia; gauzen ahitzea eta denboraren igarotzea gai nagusietakoa da, eta esaterako, sarri erabiltzen ditu urtaroei egindako erreferentziak.

Arestian aipatutako tradizio mendebaldarraren arrastoa, bestetik, poema askoren tonu eta giro poetiko malenkoniatsuan ikusten ahal da halaber. “Aspermena”, “ganora-eza”, “tristezia lohitua”, denak ere bizitza modernoaren hutsalaz edo existentziaren absurduaz ohartutako poeta europar batek idazten ahal zituen terminoak dira. Gaur egunera arte iristen den nagikeriaren esperientzia ezin hobeki adierazi zuen *Akidura* poeman, eta oro har, ez zuen esperantzarako eta festa-bozkariorako tarte askorik utzi bere poesian: “*Norbere buruari eustea, horrekin da aski!*”. Haatik, edertasunarentzako tarterik ere bada Nakahararen poesiagintzan; ez alferrik, ilargia da haren irudi kuttunetarik. Lerro borobilez (“*Ilargia, bere borreroen eskuen zain dago*”) gainera, aski baliotsuak dira haren maitasun poemak (*Michiko* esaterako), nahiz eta poema batean ni poetikoak aitortu zuen genero horretako poemak “zaborraren pareko” zirela iruditzen zitzaiola behiala.

Bi liburu argitaratu zituen Nakaharak, *Ahuntzaren kanta*, eta hil-hurren plazaratutako *Bizi izandako egunen kanta*, zeina bi urterekin hil zitzaien seme Fumiyari dedikatua baitago. Antologia honetan *Herabe-*

tasuna poema artekoak dira lehen liburukoak, eta hortik aurrerakoak bigarrenekoak.

BEÑAT SARASOLA

Udaberriko ilunabarra

Zinkezko teilatuak senbei-opila janez,
udaberriko ilunabarra lasaia da.
Behetik gora botatako hautsak urdindurik,
udaberriko ilunabarra isila da.

Ai! Ba al da txorimalorik? Ez dago alerik.
Zaldiak irrintzi egingo du? Ez du egingo.
Ilargiaren argitasun zurbilak zirkinik gabe, otzan irauten du...
Hau ote udaberriko ilunabarra?

Zelaiko tenpluek pikor gorriak diruditela,
orgaren gurpilak olioa galduta,
nik gaur egungo historiaz zerbait aipatzen badut,
trufaz eta isekari hasten zaizkit ortzia eta mendia.

Teila bat erorian galdu da:
orain udaberriko ilunabarra
mutu doa aurrera,
bere zainaren baitara.

Ilargia

Gaur gauean ilargia gero eta goibelago dago,
aitaordearen susmoaz harrituta, begi zabalik.
Segundo oro isurtzen dira zilarrezko uhinak basamortuan,
eta agurearen belarriak argi fluoreszentea piztu du.

Ai, oroimenetik kanpo geratutako ubidearen ertzak,
oroimenean laketu
tanke baten burrundarak
herdoildutako toxatik zigarroa atera eta,
malenkoniatsu pipatzen du ilargiak.

Haren inguruan ortziko zazpi neska eder
hanka-puntetan dantzan ari dira,
baina irain lorrinduan itotzen ari den ilargiaren bihotzarentzat
alferrik da hori:
ortzi urrunean izarrak trumilka zipriztindurik
Ilargia, bere borreroen eskuen zain dago.

Zirkua

Garai batzuk badira izan direnak:
eta hala, izan zen gerra uher bat.

Garai batzuk badira izan direnak:
eta hala, neguak haize gogorra.

Garai batzuk badira izan direnak:
gaur gauean segurua da parranda,
gaur gauean segurua da parranda.

Zirkuko karpa goian habe bat bada:
bertatik trapezio bat zabuz zintzilik,
ez da bistatzen ahal trapezio hori,

buruz behera dago, beso-dindiliz,
kotoizko sabai arre lohiaren pean.
Iuaaaan!, iuiooooon!, iuiaiuion!

Haren ondo-ondoko argi zuriak
uhal merkea bailitzan bota du hatsa,

ikusle guztiak sardinak nola,
ostra-maskorrak legez estu arnasa.
Iuaaaan!, iuiooooon!, iuiaiuion!

Kanpo beltzean ikatz iluna itsu,
gaua da, gero eta gau sakonagoa,
paraxut haren minez murgilduz
nostalgian.
Iuaaaan, iuiooooon, iuiaiuion!

Udaberriko gaua

Leiho-marko barruan, zilar belztuan, bete-beteko bakean,
arrosa koloreko lore bat da loretan.

Iretargi argitan, korderik gabe,
orin-izun dirudi lili-alorrak.

Ezer bakunik ez da, bereizirik ez,
kementsu eta lotsati zuhaitzok higi!

Soinu xarmant honetan
ez da itxaropenik, ez da aitortzarik.

Soilik mendiko arotz xumeak
begizta lezake karabanaren joana.

Leiho barruan dago
zetazko soineko hozkirri eta lainotsu hondarkara.

Piano papar zabalaren hotsa:
arbasoak ez daude, gurasoak joan dira.

Non ote dago lurperatutako txakurra.
Azafrai koloreko isurtzen da
udaberriko gaua.

Goizaldeko kanta

Sabaian islatua, argi zantzu gorri-horia
leihoko zirrikitutik,
landako martxa militarra gogoan,
eskuentzat ez dago egitekorik.

Txorien kanta dagoeneko amaitua,
ortzia, antza, gaur urdin argia,
inork ez du larderiatzen
alferkerian itotako izpiritu hau.

Goizeko erretxin usainak urduri jartzen nau:
galdutako anitz amets,
haizeak eragindako oihanetako xuxurlak.

Ortzi zabal, laua.
Ibaiertzen kontra iraungiz doa
anitz amets eder.

Azken orena

Udazkeneko zerua uher ilun eta
zaldi beltzaren begietako argia bezalakoa.
Ur ezaz ihartzen diren liliak,
ai, huts bihotza!

Jainkorik gabe, seinalerik gabe,
leiho ondoan emakumearen zeruratzea.
Ortzi zuria itsu dago,
haize zuria hotz dago...

Leiho ondoan burua ikuzten,
besoak samur, ezti zituen.
Goizeko argia isuria dago,
ur hotsa, tantaka jariatzen...

Kalean giro zegoen,
haurren berbaroa bata bestearen ondoan.
Baina zer agituko zaio arima honi,
ahulduz, arinduz, bihurtuko ote da inoiz zeru?

Udako gaua hirian

Zeruan ilargia, domina baten gisa,
kalean eraikinak, organo-tutuen pare,
parrandan nekatuta, gizonak etxera doaz kantari
—zimurtuta alkandora apainen lepoa—.

Ahoa handi bezain zabal,
sentimendu triste antzekoaz.
Burua zokor goibel bihurturik,
beste ezertarako gai ez, eta “tralara-tralara” doaz
kantari.

Lan kontuak eta arbasoak
ez dituzte atzendu, baina
hiriko udako gauaren sakonean,

sutauts hilarekin harreman sakona izanik,
farolen argiaren erasoa begietan,
beste ezertarako gai ez, eta “laralai-laralai” doaz
kantari.

Udazkeneko egun batean

Goizean berandu itzartzen direnak,
ate joka ari den haizea eta gurpil hotsa entzunda,
itsas lamia bizi den itsasoan itoko dira.

Uda gauetako kaleko saltokietan solasik ez da jada,
arkitektoen bihotz onik ez da jada.
Gauza guztiak, antzinako historiaren eta
granitoaz haragoko ortzi mugaren begien koloreko.

Goiz honetan, dena dago otzan kontsuletxeko banderapean,
eta nik eztainua, plaza eta ortziko danborra besterik ez ditut ezagun.
Moluskuen ahots garratzari ere kasurik egiteke,
itzal uzkurtu ubel itxura hartuta, bularreko haurrak harea ahora darama.

(Nasa urdin argiak,
pozez txoratzen dabilen neska eta iseka ari den yankia
nazkagarriak dira, nazkagarriak!)

Eskuak sakelan,
karriketan barrena, kaira atera,
eta gaurko arimari ondo doakion zapi puska zahar baten bila
abiatuko naiz.

Ilunabarra

Urloaren azal ilunean
loto-loreak, bata besteari itsatsita, kulunka.
Loto-hostoek, lotsa ez direnez,
soilik dute soinu ilauna airatzen.

Hots horiekin, nik bihotza aldaroka,
nik begiak argi apalez ortzi mugaren jarraile…,
mendi beltzek kuku egiten dute, hori baino ez
—Behin galdu dena ez da itzuliko berriz!—.

Tristuraz pentsatzen hasita, hau baino tristeagorik ez
da:
belar-zuztarren lurrina isil datorkit sudur mintzera,
baratzeko lurra, harriekin bat, dagokit begira
—Ez dakart baina lurra iraultzeko asmorik!—.

Geldi eta ezaxola, zutik jarririk, ilunabarrean
ni atzematera egin du aitaren irudiak, eta orduan,
urrats bat, bi…
aurrera egitea, ez daukat beste aukerarik.

Gauerdiko gogoeta

Hau…, kaltzio bor-bor hau,
fite lehortuko da,
maleziarik bako neskatilaren negarraren antzo,
poltsa-dendako andreak bart gauean isuri mukiaren
antzo.

Zuhaiztiko ilunsentia
ama lausotua da,
adaburuetako xomorro hegalariena,
zupakiaren dantza txantxazalea.

Ile izurtuko ehiza-txakurra oso aurretik doa,
ehiztariak nekez darama bere bizkar konkortua.
Oihan atariko belazea
aldapa gora da!

Hondartza beltzera inguratzen da Margarete,
haizeak harrotzen dio beloa,
jauzi egin behar du haren haragiak,
jainko handios den Aita Itsasoagana!

Hura dagoen amildegiaren gainean,
izpirituak lerro beldurgarriak marrazten,
eta tristura dakarkit gogora, oroituz nola ari nintzen
biltzen bere gela,
laster hil egin behar baitu.

Neguko euri gaua

Neguko gau beltzaren sakonean
zarra-zarra ari zuen euria
—arrats oskorrian jarri arbi lehorraren ezkortasuna
baino hobea—.
Orain, neguko gau beltzaren sakonean,
euria zarra-zarra ari du.
Neska hilen ahotsak ere entzuten dira
—ae ao!, ae ao!,eo!, aeo eo!—
euritan igeri;
behiala desagertu esne koloreko izotz-zaku haiek...
Orain, neguko gau beltzaren sakonean,
euria zarra-zarra ari du eta,
nire amaren gerriko gaineko lokarria
euriak eraman, eta zimelduta geratu da:
jendearen gupidak
noizbait izango ote zuen kolore laranja?

Sorterrira bisita

Lehor daude hala zutabeak nola lorategia:
eguraldi ederra dago gaur.
Etxeko behegain azpian, amaraunak
babesgabe dira dar-dar batean.

Mendian zuhaitz zimelak ere hasperenka ari:
ai, ederra dago ba!
Bide bazterreko belarraren itzalak
tristezia islatzen du xalo.

Hau da nire sorterria!
Haize fina ere badabil,
“egizu negar, ezertaz arduratu gabe”
diost ahopean andrazko zahar batek.

Ai, “zertan egon haiz orain arte?”,
galdetzen dit inguratzen nauen haizeak.

Ilunabar beldurgarria

Altxatu duen haizea malenkoniatsu jartzen denean
belarra dantzan hasten da, eta niri begien aurrera datozkit
antzinako leinu matxino hartako gizon menera gaitzak.

Zilar-paper koloreko banbuzko lantzek
ibai ertzari jarraitu diote:
soldadu mielga baten adorearen bermez.

Dabilen haizea ez zaio deika ari lur gaineko
hilotz mordoari:
ortzia, gorpuen oholtza gainera igota dago.

Bien bitartean etxeko epelean daudenek, inoren epaile zorrotz,
nikotinaz horitutako hortzak ezkutatzen dituzte.

Uda hondarreko kanta

Zumardiko zuhaitzek arnasa sakon hartzen zutelarik,
ortzia goi-goitik zegoen begira;
eguzkitan distira zegien hareatzan,
kristal puska bat egokitu eta ia zapaldu zuen bidaiariak.

Garbi eta garden dauden mendi ertzek
urre-arrainen eta nesken ahoak ikuzten dituzte;
airean gaindi datorren hegazkin hari
intsektuen malkoak igurtzi nizkion atzo.

Haizeak xingolak bidaltzen ditu ortzira,
eta ni, noizbait goitik behera jausi zen itsasoaz,
haren uhinez hitz egitera nator.

Zaldizkoen erregimentuaz, haien beso-ariketez,
behe mailako funtzionarioen zapata gaztainkarez,
eta mendi-magaleko bidean bakarrik
gidaririk gabe doan bizikletaz hitz egitera nator.

Goiz tristea

Mendira dator erreka hotsa,
udaberriko argiak harria dirudi.
Banbu-hoditeriako ura
atso berritsu ile-urdinaren antzeko.

Mika-harriaren eiteko ahoaz abestu dut,
hankaz gora jausiz abestu dut,
bihotza lehor eta zimeldurik,
harkaitz gaineko funanbulista dirudit.

Badoa sugar ezezaguna ortzian behetik gora!

Euri burrunbariaz blai nago!
.....

Itsumustuan ni txaloka hasten naiz...

Udako egun baten kanta

Zeru urdina geldi dago,
hodei bakar bat ere ez.
    Uda eguerdiko isiltasunean
    bikearen argitasuna ere aratza.

Udako zeruak badu zerbait,
xaloa dirudiena:
            eguzki-lore kiskali, harroak
                herrixkako geltokian tente.

Haurrak zuhurtasunez hazten ari den amaren antzera
            jotzen du trenak txistua,
            mendi ondotik igarotzean.

Mendi ondotik igaroz
amaren antzera jotzen du trenak txistua
            udako eguerdi beroan.

Arratseko oskorria

Muinoek, paparrean eskuak jarririk,
atzeraka egin dute.
Eguzki etzana, gupidaren antzera,
urrekara.

Zelaian belarra
landa-abestiak kantatuz,
mendian zuhaitzak
zahartzaroko sentimendu apalez.

Oraintxe ere hemen nago ni:
haurrek zapaldutako
txirla barruko mami.

Oraintxe bertan izan bihotza sendo, eta
amore eman umiltasunez,
besoak antxumatu eta banoa.

Portu-hiriko udazkena

Harresian eguzki-printzak distiratsu,
udazkeneko ortzia ederra baino ederragoa da.
Harako portuan ikusten diren haiek,
barraskilo adarrak ote?

Kalean, jendea pipa garbitzen.
Teilak nagiak ateratzen,
eta ortzia erdibitu egiten da.
Funtzionarioek gaur jai dute eta txabusina lodia soinean.

“Berriz jaioko banintz…”
kantari marinela.
“Eta kulunka-kulunka...”
kantari amona xaharra.

Portu-hiriko udazkeneko eguna,
eromen otzana.
Bizitzak jarlekurik gabe
utzi ninduen eguna.

Hasperena

Tetsutaro Kawakamiri

Hasperena gaueko zingiraraino joango da,
eta gaixotasunak dakartzan airearen baitan kliska
egingo du.
Kliskak krak egingo du aiherraz isurtzean.
Ikertzaile gazteen lepondoa bezalakoak izango dira
zuhaitzak.

Eguna urratzen duenean, leihoak irekiko dira
horizontean.
Laboraria herri aldera joango da orgatik tiraka.
Hasperena, gero eta sakonagoa,
muino-bazterra jotzen duen orgaren hotsa bezalakoa
izango da.

Zelaiaren erdian mendi-ertzetik pinu tantaiak
zainduko nau.
Barrerik egiten ez duen osaba tolesgabe baten
antzekoa izango da.

Egingo nuke jainkoren bat aire geruzen hondoan arrantzan ari dela.

Lainotutakoan, otiaren begi niniak ikusiko dira hondarretan,
herriak urrunean karezkoa dirudi,
Petri Handiaren begiek ñirñir dagite hodeietan.

Udaberriko oroitzapenak

Afaltzera etxeratzeko garaia iritsi denean,
noraezean den udaberriko arratseko
ilunantzean,
bildutako zalke sorta bat
jaurti dut lurrera.

Penaturik, une batez hari begiratu
eta ezer gertatu ez balitz bezala, txalo joka,
lasterka nator etxe aldera
(Ilunabar hondarrean!).

Etxean sartu eta,
familia giroan,
udazkeneko muino gaineko eguzkia dela, dela
otorduaren lurruna
lilura betean nago.

Antzinako jauregi aberats batean
quadrille, gonak kulunkan,
quadrille, gonak kulunkan,
egunen batean amaitu egingo da, *quadrille*!

Udazken gaueko ortzia

Hori da hori zalaparta alaia han goian!
Hainbeste andrazko
ahora etorritako guztiak elkarri esaten,
baina prestu izateari utzi gabe hala ere.
Beheko munduan udazken gaua izaki,
ortzi gainekoan, aldiz, zalaparta alaia nagusi.

Zoru leunaren gainean
urrezko argiontziak izekita daude.
Burua txiki, eta soineko barrenak luze
eta ez dago aulkirik.
Beheko munduan udazken gaua izaki...
hori da hori argitasuna han goian!

Ortzi gaineko mundua argi lausotan...
Antzinako festa itzaltsua,
zalaparta isil-isila
ortzi gaineko munduan, gau-oturuntza.
Beheko mundu honetatik nengoen hari begira,
eta ohartzerako suntsitu egin da.

Bestondoa

Goizean, eguzki lausoak albotik jotzen du eta
haizea dabil.
Mila aingeru
saskibaloian jostari.

Nik begiak ixten ditut,
hau da hau mozkor tristea.
Orain behar ez dudan estufa,
margul antzera jo du herdoilak.

Goizean, eguzki lausoak albotik jotzen du eta
haizea dabil.
Mila aingeru
saskibaloian jostari.

Nerabezaroa

Harri urdin uherren gainean jotzen zuen udako eguzkiak,
eta lorategiko lurra, gorri argi, lo zegoen.

Hodeiertzaren azken muturrean lurruna altxatu zen,
iragarriz bezala munduaren azkena.

Gari sailen gainean galburuak igurtziz haizea,
lauso, eta arre.

Hegan zihoazen hodeien itzalak bailiran,
arroz-soroen gainetik antzinako digante-islak.

Uda egun bateko arratsean,
denak lo ziren orduan,
neu lasterka zelaian barrena...

Itxaropena ezpain eta hortzen artean estutuz ni,
begiak ezin zabalago, etsirik...
Baina, ai! bizirik nengoen..., bizi-bizirik ni!

Udazken itsua

I

Haizea altxatu du, uhin burrunbatsuak daude,
besoak inarrosten ditut infinituaren aurrean.

Bitartean, lore gorri ñimiñoak bistatzen dira baina,
erauzi egiten dira deblauki horiek ere.

Haizea altxatu du, uhin burrunbatsuak daude,
besoak inarrosten ditut infinituaren aurrean.

Ez naizela betirako itzuli oldoztuz
zenbat bider egin ote dut hasperen bihozgabea...

Odol-garraio, zain zurrun bihurtu zait dagoeneko gaztaroa,
eta infernu-loreak eta arratseko eguzkia doaz haren baitan.

Isil, distiratsu, emankor,

urruntzen ari den emakumeak azken unean
oparitu didan irribarrea bailitzan,

aintzatsu, aberats eta bakarti orobat,
bakun, epel, argitsu, betirako nire barnean...

Ai, betirako nire baitan...

Haizea altxatu da, uhin burrunbatsuak daude,
besoak inarrosten ditut infinituaren aurrean.

II

Hau nola amaituko den, edo hura nola amaituko,
txikikeria zait, ez dit ardura.

Honek zer esan nahi duen, edo hark zer nahi duen esan
txikikeria zait, ez dit ardura batere.

Norbere buruari eustea, horrekin da aski!
Beste gauza guztiak beude bere horretan...

Norbere buruari eustea, norbere buruari eustea,
norbere buruari eustea, norbere buruari eustea,
behin hori lortuz gero, ezin da hobenik egin.

Bare, alai, eta isil lasto-sorta lez,
eltzea goizeko lainoaz beterik, jauzi batean jaikitzearekin da aski!

III

Nire Ama Birjina Santa Maria!
Ez dut ohartu gabe odola galtzea besterik egin!
Onartzen ez nauzulako
behea jota nago, hori baino ez...

Nik zu maite izatea berezko gauza zen bezala,
zuk ere maite ninduzun, baina
ni *beti-kontra hutsa* nintzenez,
ez nuen aski kemen...

Ai, nire Ama Birjina Santa Maria!
Jada ez dut konponbiderik baina,
jakizu hau bederen:

berezko aiurriz maite izatea
ez da suertatzen sarri,
gutxiri zaio emana, gainera, hori jakiteko zoria.

IV

Hiltzen naizenean sikiera
emakume hark erakutsiko ahal du nire gainean bularra?
Ez nuke nahi une horretan makilatuta egotea,
ez nuke nahi une horretan makilatuta egotea.

Zuk soilik erakuts iezadazu bularra isilean,
eta isla zaitez nire begietan.
Ez nuke nahi zuk ezer ere pentsatzea,
ez nuke nahi zuk nitaz ere pentsatzea.

Ez nuke besterik nahi, zuk gorde malkoak begietan
eta hartu eztiro arnasa.
Malkoak isurtzen bazaizkizu,

zu deblauki etzan ahuspez nire gainean,

eta lasai hil nazakezu.

Ni pozarren joango bainaiz beste munduko bide sigi-
sagatsuan gora.

Erretzen

Zure bi zango zuri horiek
ilunabarrean, portu-herriko ilunabar hotzean,
urrats handiz aurrera kale zolatuan.
Dendetan piztu dira argiak, piztu dira,
eta ni haiei begira.
Esaten didazu,
“Nonbait har dezagun atseden!”.

Eta ni zubiak eta garraio-ontziak bertan utzirik,
jatetxe batean sartzen naiz.
Hango zarata eta burrundara, bero itogarria:
hau bai dela beste mundu bat!
Eta nik, garaiz kanpoko zure aurpegi alaiari so eginik,
zigarro bat pipatzen dut, kopetilun,
zurrupadaz zurrupada, astiro errez...

Nire maite txikia

Gauez, arima eder bat negar malkotan,
—Hura da neska zintzoa, hura!—
Gauez, arima eder bat negar malkotan,
“Hil behar badut ere ez dit axola…” zioen.

Zelai hezeko lur beltzaren belar motz gainean
arratseko haizea zebilela,
“Hil behar badut ere ez dit axola. Hil behar badut ere dit axola” esanez
arima eder hark negar egin zuen.

Gauez, ortzia oso goian, haize mina zebilen,
—Ni ez nintzen gai otoitz egiteko baino…—

Gau hotz bateko autoerretratua

Ez da dirdaitsua,
baina brida bakar honi irmo heldurik,
eremu ilun, laiotz honetatik igarotzea!
Helburua zein den garbi dagoenez,
neguko gauaz ez naiz kexu.
Jendearen pairamenik ezaren tristura, eta
ametsaren menpe harat-honat emakumeen murmurio-abesti alderraiak
zigor xume direla eginik,
larrua zizta diezadaten uzten diet.

Zabuka eta isil,
formaltasun doi bat gorderik,
nagikeriagatik neure buruari agirika egiten diot
ilargi hotzaren azpian igaro arau.

Alai, bare eta hotz iraun, eta neure burua ez dezadan sal,
hori du nire arimak desio!

Zuhaitzen itzalak

Tenplu sintoistako arkupea argitan murgildurik,
kulunkatu egiten dira zumarraren hostoak.
Berdean berde, udako eguerdiko zuhaizpeak
ni, damutan naizen hau, kontsolatzen nau.

Damu iluna, inondik joaten ez zaidana,
barre inozoz mukuru nire iragana,
ilunpe malkotsu egina,
denboraren puruz erauzi ezineko neke bihurtu da.

Orain, beraz, goizetik gauera
eutsi baino ez diot egiten egunero bizitzeari.
Herrarik gabe, neure senean ez banengo legez,
ortzira so eginik dauzkat begiak.

Tenplu sintoistako arkupea argitan murgildurik,
kulunkatu egiten dira zumarraren hostoak.
Berdean berde, udako eguerdiko zuhaizpeak
ni, damutan naizen hau, kontsolatzen nau.

Galdutako itxaropena

Ortzi ilunean desagertu zen
gaztetan sutan nuen itxaropena.

Uda gaueko izarrak nola, oraindik
ortzian, han urrutian erdikusten da.

Ortzi ilunean desagertu zen
gaztetako ametsa, itxaropena.

Orain, hemen ahuspez natza,
piztia baten gisan, hausnar ilunean.

Oldozte itun horrek
atertuko duen ezin jakin.

Eta ortziko ilargiari begira,
gauaren itsasoan itota nagoela dirudi.

Sakonegia da baga hori.
Aratzegia da ilargi hori.

Gaixoa nire gazte denboran sutan zen itxaropena,
jadanik joana da ortzi ilunean gora.

Uda

Ahotik odola botatzen hasteko moduko aspermena, ganora eza.
Gaur ere soroetan eguzkia dir-dir, galtzuetan eguzkia dir-dir,
tristura lotiarekin, ortzian, urrun,
ahotik odola botatzen hasteko moduko aspermena, ganora eza.

Ortzia sutan, soroak zerumugaraino,
hodeiak airean, itsutzeko besteko distiraz.
Gaur ere eguzkia gori, lurra lo,
ahotik odola botatzen hasteko moduko oinazez.

Bihotzaren historia, ekaitza bezalakoa,
amaitua balitz bezalakoa,
hor neure eskuz jos dezakedan haririk ez balego bezala,
suzko eguzkiaz haratago lo dago.

Ni geldituko naiz, gorpu bihurturik.

Ahotik odola botatzen hasteko moduko oinazea, tristura.

Barne-paisaia

I

Haizea zebilen pinuen artean,
triste entzuten zen oinpean hartxintxar hotsa.
Haize epelak igurtzi zizkidan masailak,
eta herriminak jo ninduen lehengo egunak gogoan.

Eseri nintzen eta,
garbiago entzun zen olatu-hotsa.
Izarrik gabe,
kotoi iluna zen ortzia.

Nire aurretik igaro zen txalupan
zerbait esan zion emazteari ontzizainak,
baina ezin izan nituen bereizi haren hitzak.

Garbiago entzun zen olatu-hotsa.

II

Malkotan nago
iragan denbora hautsiagatik.
Gaztelu-hesi lehortuetan
haizea dabil.

Belarra dantzan.
Muinoan gora, zelaian zehar,
ez da ageri
atseden bako aingeru zuri.

Gizajoa ni, hiltzea desio dut.
Gizajoa ni, bizitzea desio dut.
Gizajoa ni, malkotan nago
iragan denbora hautsiagatik.
Ortziko sabai aldetik
haizea dator.

Michiko

Itsasoaren antzo zure bularrak
naharo eta bare mugitzen dira.
Urrutiko ortziak, uhin urdinak,
pinudien gainetik joan-jinean.
Haize berdea ere ibili dabil,
hondartza margul-xuri, baina zein luze.

Eta begietan zuk islatzen duzu
zeru urrundu horren amai ezina,
uhinen lerrokada hondartzaraino
handik eta hemendik dabilelarik.
Itsaso zabalean oihal bat bistan
zauzka liluratuta belaontziak.

Eta zure kopeta zein den ederra,
zarata hots batekin ikaraturik
biaoko ametsa eten zaizula,
txekor bat bezain arrai, tolesgabea,
airos eta pinpirin, xalo haina apal,
gorantz jaso orduko makur burua.

Zure lepondo ostadarra adin xarmangarria,
zure beso haur jaio berriak bezain ilaunak,
soinu eta kanta bizkor airean, dantzari bazabiltza,
itsaso urre urtu kolorekoak besarkaturik sartaldean ekia,
itsas handitan urrun, uhagak aldiro urrunago, isil, oparo,
hondar arnasa eman duzula dakusat itun ortziari so.

Tristezia lohituaren gainazalean

Tristezia lohituaren gain azalean
Elurra ari du gaur behin berriro
Tristezi lohituaren gain azaletik
Behin berriro haizea gaur hara-hona

Tristezi lohituaren gain azala
Azeri larru dela egin dezagun
Tristezi lohituaren gain azala
Kuzkurtu egiten da elur azpian

Tristezi lohituaren gain azalak
Ez du ezer espero ez ezer gura
Tristezi lohituaren gain azalak
Neke handitan dagi balbeaz amets

Tristezi lohituaren gain azalean
Sortzen zaidan beldurrak min ematen dit
Tristezi lohituaren gain azalean
Ezinbestez eguna bihurtzen da gau...

Izenbururik gabe

I

Maitea, samur eta ezti izan zara nirekin beti,
baina setatsua naiz. Bart arratsean, zu agurtu ostean,
zurrut baldarrean, bortitz erasiatu nuen
neu baino ahulago zen bat.
Gaur goizean, esnatu eta, zure samurtasuna gomutan,
neure zakarkeriaz nauzu lotsa-damutan, eta
noraezean burua, ari natzaizu aitortzen, ahalkerik gabe,
duintasun izpirik ez, urri zintzotik,
neure baitako lilura eroen mende galdu gordean nabil hara eta hona.
Inoiz ez dut besteen sentipenez oldoztu aski.
Maitea, samur eta ezti izan zara nirekin beti,
baina setatsua naiz, eta berekoi ume bat bezain!
Ernaturik, bestondo makurraz burua nahas,
goiz giro hotza nabari dudala ateaz bestalde,

zure samurtasuna gomutan, nire hitz gordinek erasandakoez oroitzen naiz.
Orain, goibel, dagoeneko ez naiz ezertaz jabetzeko gai,
eta goiz honetan nago sinetsita naizela hutsaren hurren!

II

Zein den zuzena neska horren arima!
Bizitza beti izan da gogorra beretzat,
eta inoren laguntasunik ez,
inor agertu gabe ulerbera haren sentimenduetara,
baldar bizi izan da, baina haren arima
hagitzez da nirea baino zuzenagoa, eta beti irmo.

Ederra da. Mundu honetako zurrunbilo kaotikoen artean,
zuhur eta apal bizi da.
Mundu-zurrunbilo kaotikoetan,
inoizka ahuldu egiten da haren arima, dar-dar batean,
ez da baina gabetzen duintasunaz.

Ederra da eta zuhurra!

Nola egiten duen borroka lehen-samurtasunaren bila haren arimak!
Orain, ordea, etsian dago,
ez baitu idoro piztia berekoi apetatsua besterik, eta haurrak baino ez nonahi.
Eta ohartu ez denez jendea zitala delako ustea du.
Behea jota, erorian dago. Dohakabea da zeharo!

III

Hain triste bizi garen mundu honetan, ez zaitez tematu grinan.
Nik zure ondoan nahi dut izan,
eta ez zaitez tematu grinan.

Grinan tematsu badihardugu, itsu izango ditugu bihotz-begiak,
eta gure hitzik ez iristen arimak.
Lasai eta guri bagara, sortzetik dakargun
amets eztia eta arrazoia elkarrekin ditzakegu bana.

Bihotz-arimak atzendu eta ohilduz,
arrail horditurik, ederraren xerka gabiltza ero gisan.
Bai tristea dena gure mundua.

Bihotzari berez darion sentimenduaz peitu,
beti beste inori gaina hartu nahiak akuilatzen gaitu,
sukarrak jotako aurkintzak besterik ez duen mundu hau, bai tristea dena.

IV

Nik zu beti zaitut gogoan.
Maitasunez mukuru, gogo lasai gardenean
murgilduta, gau eta egun,
ia sentitzeraino hobendun.

Maite zaitut hainbeste, ezin gehiagoan.
Gogoetatsu nabilen arren nago
alfer lana ez ote den ahalegin hori,
eta pentsatu dut nire burua osorik eskaintzea zuri.

Hala, ez dut hori baino xede goragorik,
ez itxaropen, ez jomugarik,

eta zoriontsu naiz horrela biziz.

Zoriontsu naiz munduko nekeak ahazturik,
beste ezertaz arduratu gabe,
zoriontsua naiz zure begira bizi naizelarik!

V. Zoriontasuna

Zoriona zalditegian dago,
lasto gainean.
Bihotz bareak laster ulertzen du
zer den zoriona.

> Bihotz tematsua, beti suminez, dohakabea da,
> eta ziztuan joan badoazen gai galkorrekin,
> eta beste hainbat ekai iragankorrez laketzen da,
> eta ondorioz, gero eta dohakabeagoa da.

Zoriontasuna atsedenean zer suma dago,
egitekoak hutsik gabe erreskadan
noiz etorriko,
gogo adikorra zorionak du.

Bihotz tematsua ez da ulerbera,
ez da adikor, beti etekinen baten lehian,
lur jota, suminez,
eta maitasunik erdietsi ezinda, tristeziaz gainezka dago.

Beste ezer baino lehen aintzat har ditzagun besteren esanak.
Horren ordain, baina, inork gu onestea galdatu gabe.
Ikas dezagun besteri entzuten,
duintasuna gailen dakigun prestu, eta aberats gaitzan.

Gaua aurrera

Utsumi Kenichiro-ri

Ilundu ahala, auzoko bainuetxean
urak hartzen ari direnen hotsak entzuten dira gauero.
Ur beroaren jarioa lurrunetan gora-gora,
antzinako Musashino eskualdeko gau beltza da.
Behelainoa han da, bare,
ilargiaren argitasuna bistatzen da gainean
eta, deblauki, zakur zaunkak entzuten urrun.

Aldarte hori izaten dut
amets lausoa egiten dudanean sutondoan.
Dagoeneko… lehengoa ez naizen arren…,
oraindik barruan dudan bihotzaren samurra
ahapeka hitz egiten hasten zait gaur bezalako gauetan eta,
esker onez, hari egoten natzaio adi,
esker onez, hari egoten natzaio adi.

Errudunaren kanta

Abe Rokuro-ri

Neure aldian, gazte amorratu nintzela, lorezain traketsak
ibili nituen lanean; bai gauza tristea!
Orduz gero odolik gehiena
burura igo, irakiten hasi eta bor-bor batean dabilkit.

Sosegurik gabe, bizkor aitzinatu beharraren beharrez,
beti nabil neure buruaz landa zerbaiten xerka.
Jokabide inozoagorik!
Hori da burubide ulergaitza!

Beraz zuhaitz errukarri hau,
azal latz lakarra ortzian eta airean utzita,
iraganeko damutan murgildurik etengabe,

nagiak jota, jokaera apetatsuz,
kikildua jendearen aitzinean, koipekeriari emana,
sarri jausten da uste gabean ergelkerian.

Udazkena

1

Atzo arte sutan zen zelaia,
gaur mugagabe hedatzen da ortzi lainotsuaren pean.
Udazkena sakonagoa dela diote euria egin arau.
Jada kantari ari dira udazken-txitxarrak,
belardiko zuhaitz batean.

Pipatzeari ekin diot, kea
sigi-saga doa aire geldian gora.
Ortzimugari so jarri nahi, baina ezin,
eseri eta zutitu baitabiltza ganduaren mamuak.
Ni nahigabe, kukubilkatu egiten naiz.

Ortzia, urre ilunaren koloreko, lainotuta dago, —ez da gauza berria—.
Sobera garai denez, nik, nahigabe, makurtu egiten dut burua.
Asperrez etsirik bizi naiz,
tabakoari hiru bat zapore hartu dizkiot...,

heriotzarena ez legoke urrun...

2

“ ‘Tira ba, agur!’ esanda,
letoi distiradun irribarrea ezpainetan,
alde egin zuen ate hartatik.
Irribarre hark ez zirudien bizirik dagoen batena.

Urmael gardenen kolorea zuten haren begiek.
Hitz egiten zuenean, beste mundu batetik ari zela ematen zuen.
Buztan motzeko perpausez esan ohi zituen gauzak.
Garrantzirik gabekoak gogoan gordeta”.

“Bai, halakoxea zen. Jakingo zuen heriotza gertu zuena, beharbada?
Duela gutxi, izarrei begira barre egiten zuen, ‘Izar hori ni bihurtuko da’ esanez.

.....

Duela gutxi, bere geta-eskalapoiez hizketan, zioen
ez zirela bereak inondik ere”.

3

Belarrak ez zuen zirkinik egiten,
Pinpilinpauxa bat hegan zebilen gainean.
Yukata kimonoa jantzita, ataurreko oholtzatik begira
ari zitzaion.
Ni, honantzago nengoen hari so.
Hark, berriz, ez zeukan begirik pinpilinpauxa
horiarentzat baino.
Tofu-saltzaileen txistua entzuten zen han-hemen,
Argindar-zutabe hura nabari zen arratseko ortzian,
“Nik”, jiratu zen nigana, eta, esan zuen,
“Nik atzo 110 bat kiloko harri etzana zutika jarri
nuen”.
Eta galdetu nion, “Hara! Nolatan baina? Eta hori
non?”
Orduan, begietara bekoz beko so egin zidan,
Haserre balitz bezala... eta, ai! beldurra izan nuen!

Hil-hurren denaren jokabideak bitxiak izaten dira, ezta ...?

Gerraren Kaleko erosta-kanta

Takakatsu Sekiguchi-ri

I. Atariko kanta

Oroitzapen beltzok,
utikan! Eta lehengo
errukia eta
sentipen oparoak,
itzul daitezela hona!

Gaur igandea,
ataurreko oholtzan eguzkiak jotzen du,
berriro ere amarekin atera eta,
jaietan puxika eros diezadan nahi nuke:
ortzia urdin min, dena distira, liluragarri...

Oroitzapen beltzok,
Utikan!
Ospa! Utikan!

II. Hordi bizi

Gazte sasoia joan zait,
—Goizalde hotz honetan, zelako kukurrukua
oilarrak!—
Gazte sasoia joan zait.

Ez atzera, ez aurrera begiratu gabe bizi izan naiz
zinez...
Arinegia izan ote naiz?
—Gerlari tolesgabea nire bihotza!—

Hegigoa diet baina
soilik ingurukoei begira bizi direnei.
—Bizitzaren paradoxak!—

Eta hemen nago orain goitik beheraino zauriz betea.
—Goizalde hotz honetan, zelako kukurrukua
oilarrak!—
Ai, antzigarrak hormatu kukurrukua...

III. Bakarrizketa

Palankana urik isuri gabe eramatea
oso da garrantzitsu.
Hori hala izaki,
hainbat hobe zenbat eta gehiago higitu.

Baina, nolanahi ere alfer lana da
mugimendu hori lortzearren beste modu batez
saiatzea bera...
Bihotza,
izan apal, eta itxaron jainkoaren mesedea.

IV

Oso lurruntsua da
gaurko eguna
Euria geldi ari
isil-isila
Uraren inguruko
aire finean
Oihaneko usaina
dabil hor zehar.

Udazken-udazkenez
egun bete hau
Harrien hotsa nola
hura halaxe
Nik, oroitzapenik ez
daukadan honek,
Ametserako ere
gaitasunik ez.

Ni, benetan harria
bezalakoa
Itzal baten antzera
naiz bizi izan
Hots egin nahi bai baina
eskas hitz doia
Eta ortzia legez
muga gabea.

Bihotz puska nirea
hain da tristea
Ukabil dut eskua,
ziorik gabe
Inor egin nezake

horren hobendun?
Oinaze eta penak,
azkenik ez du.

Elurpeko arratsean

Kapela urdinean
elurra ari
Joandako esku hura da
ala xuxurla?

HAKUSHU

Hotelaren gainean
elurra ari
Joandako esku hura da
ala xuxurla?

Kea dariela daude
han tximiniak,
Sutauts gorri bizia
dantza jorian.

Gaur gauean, ortzian
ilunak dakar
Ortzi beltzean behera

itsu elurra...

Eta ihesi joan zen
emakumea,
Zertan ote dabil, bada
une honetan?

Eta ihesi joan zen
emakumea,
Itzuliko ote da
halako batean?

Isiltasun larrian
edana lagun,
Damuz gora-goraka
bakea urrun.

Isiltasun larrean
edana bazka,
Oroitzapen kuttunei
loturik nago...

Hotelaren gainean
elurra ari

Joandako esku hura da
ala xuxurla?

Kea dariela daude
han tximiniak,
Sutauts gorri bizia
dantza jorian.

Gazte egin arteko kanta

I

Haurtzaroa:
nire gainean ari zuen elurrak
lumatza kotoizkoa ematen zuen.

Nerabezaroa:
nire gainean ari zuen elurrak
elur busti maskala ematen zuen.

Hamazazpi eta hemeretzi urte artea:
nire gainean ari zuen elurra
txingor eraso legez barreiatu zen.

Hogei eta hogeita bi urte artea:
nire gainean ari zuen elurra
harriabarra zela egin zitzaidan.

Hogeita hiru urte:
nire gainean ari zuen elurrak

elur-bisuts printzatu ematen zuen.

Hogeita lau urte:
nire gainean ari zuen elurra
isil-isil etzanda pausatu egin zen.

II

Nire gainean ari duen elurra
lore-hosto balitz bezala ari zait pausatzen.
Surtan den egur hotsa adi daiteke
Iluntzen ari dela ortzi izoztua.

Nire gainean ari zuen elurrak
Zeharo airos eta *iragan minez,*
Nigana luzatuta zeuzkan eskuak.

Nire gainean ari zuen elurrak
Bekoki berotuan jausten zenean,
Malko-erreka dirdai ematen zuen.

Nire gainean ari zuen elurra
Bihotz barne muinetik eskertu nuen,

Zorretan nintzen,
Luzaroan bizi nendin otoiztu nion Jainkoari.

Nire gainean ari zuen elurra
Zinez, benetan, elur aratza zen.

Heldu da garaia ...

> Heldu da garaia, txortenean dar-dar
> lorea lurrintzekoa, intsentsu-ontzia bailitzan
>
> Charles Baudelaire

Heldu da garaia, txortenean dar-dar
lorea lurrintzekoa, intsentsu-ontzia bailitzan,
eta antzematen da haien presentzia:
ihintzetan loreena, ur-xuxurlena,
etxera presaz doan jendearena.

Ea ba Yasuko, heldu da garaia,
isilean elkarren ondoan egongo gara.
Zeru goian, urruti, txoriak hegan,
gupida xaloz gainezka, hegaz hegaka.

Ea ba Yasuko, heldu da garaia,
hesiak gero eta ilun itsuago,
isilean ortzia, gaua urdintzen ari.

Ea ba Yasuko, heldu da garaia,
kulunka dituzula ile xerloak,
lorea lurrintzekoa, intsentsu-ontzi bailitzan.

Ardiaren kanta

Yoshihiro Yasuhara-ri

I. Otoitza

Heriotzako orduan, buruz gora gerta nadila!
Nire kokots txiki hau, are txikiago bihur bedi!
Sentitu beharrekoak sentitzeko gai izan ez naizenez,
heriotza helduko zaidalakoan nago, horren ordain.

Ai, une horretan buruz gora etzanda gerta nadila!
Izan nadila dena sentitzeko gai, kinka horretan gutxienez!

II

Nire gogo hori! Hi, aire zahar eta ilun hori,
alde egik nire baitatik!
Nik jada soiltasun eta xuxurla isila…
garbitasun xaloa baino ez diat nahi.

Nire jendekoitasun hori! Hi, ilunpe lohien oneste haizen hori,
ez nazak berriro iratzarri!
Bakardadea pairatzen ari nauk,
nire besoek ziruditek gauza ezdeus bi.

Aizue begiok, goganbeharrez irekitzen zaretenok,
zabalik, zirkinik ez dagizuen begiok,
eta, ai ene!, nirekin ez beste guztiekin fidakorregi den nire bihotz hori ere!

Nire gogo hori, hi aire zahar eta ilun,
alde egik nire baitatik, joan hadi!
Jada ez nauk gozatzen neure amets txiroekin baizik.

III

Ekaitz ilunpetsu besterik ez zen nire gaztaroa,
han-hemen eguzki distiratsuz zeharkatua.

Charles Baudelaire

Bederatzi urteko haur bat zegoen,
neskatoa,
munduko aire guztia berea balu bezala,
eta hari eustea posible balitz bezala,
burua okertzen zuen,
nirekin hizketan ari zela.

Kotatsu barruan eserita nengoen ni,
tatami gainean hura.
Neguko goiz oskarbi bakan horietakoa zen,
eguzkiak betetzen zuen nire gela,
burua okertzen zuenean
belarri-gingilean iragazten zitzaion argia.

Nitaz fidaturik, kezkarik gabe,
ez haren bihotzak, ez haren samurtasun

laranja koloreak, ez zuen egiten gainezka,
eta ez zen uzkurtzen oreinaren gisa.
Nik, bien bitartean, beste ardurarik gabe,
denbora irakurri nuen zehazki patxadaz.

IV

Hala ere, hain da bakarti nire bihotza.
Gauero, inor gabe bizi naizen gela honetan,
gogoetarik gabe, gogoeta gogoan,
monotoniaz nire bihotzean lau eskutara ari dira jotzen pianoa...

Urruti trenaren txistua entzuten denean
bidaiak, umetako egunak datozkit gogora;
baina ez, ez dira ez bidaia eta ez umetako egunak,
bidaia eta egun haien irudipenak baizik...

Gogoetarik gabe, gogoetak gogoan, nire bihotza
kutxa txiki hertsi, lizundu baten antzekoa da.
Ezpainak zurbil, masailak lehor,
isiltasun anker honetan murgildu dira...

Hala ere, ohituta egonagatik,
negargarria da pairatzen ari naizen bakardadea,
eta nahi gabe, aldika, isurtzen ditudan malkoak jada,
ez dira maitasun bila dabilen batenak...

Akidura

Pour tout homme, il vient une
èpoque où l'homme languit.
PROVERBE

Il faut d'abord avoir soif...
CATHERINE DE MEDICIS

I

Ez naiz aldarte onean iratzarri,
esnatu orduko betiko gogoeta malenkoniatsuak,
gogo nahasiz egin dut amets...
(ez nenbilen ederki, baina
ezin nuen atera handik).
Eta gaua iristen zenean pentsatzen nuen
mundu hau itsasoa bezalakoa dela.

Arratseko itsas kirrua ekarri nuen gogora.
Han txaluparia, neke aurpegiz, ezbaiko arraunketan,

harrapariri k den edo ez zer suman,
uraren azalari zorrotz begira doa.

II

Lehen pentsatzen nuen
amodiozko poema bat zaborraren parekoa zela.

Orain ordea amodiozko poemak idatziz,
nago horiek egitea merezi duela.

Hala ere, oraindik tarteka desira izaten dut
amodiozko poemak baino idazteko zerbait hobea.

Ez dakit zuzena den ala ez nire grina hori, baina
hori pentsatzea beste biderik ez daukat azken finean.

Batzuetan horrek amorrua ematen dit,
eta uste gabean itxaropena sortu ere bai.

Lehen pentsatzen nuen
amodiozko poema bat zaborraren parekoa zela.

Orain, ordea, ez naiz gai
amodioarekin amets egiteko baino.

III

Hori neu ustela naizelako den edo ez
nola jakingo dut.

Beso zuztarrak hartuak dizkit nagiak.
Gaur ere eguzkia diz-diz, ortzia urdin.

Beharbada, aspalditik neure kabuz
maneiatzeko gauza naizen bakarra alferkeria hauxe izango zen.

Neurekin nituen igurikapen baikorrak ere,
nagikeria horren baitan neuk gizendutakoak izan litezke.

Ai, hau da hau, ez nuen egundo pentsatuko
ametsetan bizitzeko baino gai ez den gizona bihurtu behar nuenik!

IV

Baina, mundu honetan gizakiok
ona zer den eta zer txarra ezin erraz bereizi.

Batzuk eta besteak gizakiok igarri
ezin dugun arrazoi ugariren mende baitaude.

Mendiko ur gardena legez, eroapen handiz,
isil-isilean, ederki bizi daiteke.

Trenetik ikusten diren mendiak, belarra,
ortzia, ibaiak... den-dena,

erabateko harmonian urtu eta
ortzira igo eta ostadar bihurtuko direla uste dut...

V

Beraz, zer egin behar dut onura lortzeko,
zer egin behar dut jendeak gure kontura barre ez egiteko?

Nola liteke munduan gau eta egun
besteen begiradaz baino arduratzen ez den jendea egotea!

Zuzen zabiltzatelakoan,
ni ere zuek bezala jokatzen saiatu naiz, baina

gaur, berriz ere neu naizenera etorri naiz,
tinkatua egon den gomazko soka askatu berriaren antzo.

Eta, nagikeriaren leiho honetatik,
hatzak haizagailuaren eran zabal,

ortzi urdinaz gozatuz, xurgatzen dut denbora,
igela banintz bezala ur azalean.

Gauean, berriz, ortziko izarrei begira nago…
Ai, gero eta haratago! Ortzian gero eta haratago!

VI

Neure bostean jarraitzen dut hala ere:
batetik, besteek egiten dutena egin beharko nukeela etsita,
nire existentzia gogaikarria delako aieruz, bestetik.
Batzuetan saltoki handietako langileak
bezeroek erositakoa etxera eramaten ikustean harritu egiten naiz.

Eta gauzak ezin argiago egon arren,
zalantza txiki ugarik hartzen didate bihotzeko zola.
Bi kontu ergel horiek beti gogoan,
ez didate bakerik ematen. Hori hala da.

Belarriraino heltzen zaidan musikak baina, limurtu eta
piztu egiten nau pixka bat,
betiko bi kontu horiek orduan hil egiten dira nire baitan.

Ai, zeruaren kanta!, itsasoaren kanta!,
ederraren muina iritsi dudalakoan naiz,
baina, hala ere, bai latza nagikeria nola saihestu erarik ez aurkitzea!

Bizitzaren ahotsa

Lan oro zurbil ageri da eguzkiaren pean.

SALOMON

I

Bachekin eta Mozartekin gogaituta nago jada.
Jazz zoriontsu kaskarinaz ere aspertuta nago.
Ortzi atertu berri, lainotuaren peko treneko zubi bat bezala bizi naiz,
nigana jotzen duena bakardadea da beti.

Ez nago hala ere bakardade horretan murgilduta erabat.
Gauza baten bila nabil, etengabe nabil gauza baten bila,
zirkinik egin gabe, baina eroapena galduta zeharo.
Horregatik, nahiz jateko eta sexu gose izan, ezin dut ase gogo hori.

Eta hori zergatik den ere ez dakit garbi. Inoiz ez dut aski argi izan kontu hori.
Ez dut uste bi gauza direnik bakarra baizik.
Eta hori zergatik den ere ez dakit garbi. Inoiz ez dut aski argi izan kontu hori.
Hori jakiteko ausazko erarik ez dut asmatu oraino.

Noizbehinka neure buruari galdetzen diot iseka egin nahirik bezala:
“Emakumea ote da hori? Gozo-gauza ote da? Ospea ote da?”
Orduan nire bihotza oihuka hasten zait: “Ez bata eta ez bestea! Ez bata eta ez bestea!”
Hortaz, zeruko kanta bat ote da ba?
Goizez ortzian gora entzuten den zeruko kanta bat ote da?

II

Ez, ez, ezin da edozein modutara egin!
Inoiz izaten dut azalpen labur batez jo eta pasa egiteko gogoa, baina

nire bizitzak azaltzen zaila izan arren, hainbeste merezi duelakoan nago.
Hori da errealitatea! Hori da zoriona! Gauzak diren bezala agertzea!

Jakinaren gainean edo jakiteke, gauza berbera nahi dugu denok,
eta hori ezin lortu da elkarren lehia nagusi den artean;
gauza berbera desio dugu denok,
baina hori osorik inork ezin du lortu mundu honetan gauden artean:
kezkarik gabe bizitzea esaterako.

Beraz zoriona irabazirik gabeko kontuen eremuan badago,
eta merkatari azkarrek “ergel izatea” irizten badiote horri,
oso bidegabea da bizi ahal izateko jan egin behar delako kontua ere.

Baina horrelakoa da mundua, eta munduan gu;
bidegabe hori ez da funts gabea, hala ere, gu geu ere ekai horretatik osatuak baikaude

eta, beraz, mundukoon artean muturreko alderik ez denez,
on genuke kera egin eta hartzea atseden.

III

Beraz garrantzitsuena pasioaren gorabehera hori da.
Hi, benetan haserre bahago
sumindu hadi!

Hala ere haserretzea
ez da helburua,
ez da egoki hori ahaztea!

Pasioa jaitsi egingo da denborarekin,
baina ez da guztiz galduko gizartearengan haren indarra,
eta hurrena beste bide bat hartu nahi bada, gerta daiteke eragozgarri.

IV

Ilunabarrean, zeruaren azpian, gorputza besterik ez naizela sentitzen badut ezin naiz ezertaz kexu izan.

Herabetasuna

Bizi izandako egunen kanta

Zergatik ote nire bihotza hain herabe?
Udazkeneko mendiaren itzala haize zuriko egun
batean,
Kastanopsisen hosto ihartuak sakonunean,
Bitxiki ernetako zuhaitzen gerriak zutik daude.

Bilbatzen diren adarren tristezia,
Zeruan, haur joanen izpirituak brixtari daude.
Uneon, urruntasunean, zelai gainean,
Astrakanen artean, ikusgai dira antzinako elefanteak
ametsetan.

Kastanopsisen hosto ihartuak sakonunean,
Bitxiki ernetako zuhaitzen gerriak zutik daude.
Egun hartan, zuhaitz gerrien artean begi-nini
adeitsuak,
Zeure baitan neska heldua ematen zenuen.

Egun hartan, zuhaitz gerrien artean begi-nini
adeitsuak,

Zeure baitan neska heldua ematen zenuen.
Ai! iraganeko une bizi distirant haiek!
Zergatik ote nire bihotza hain herabe?

Hustasuna

Abenduko festa egun batez gauean kalera eroria,
  Bihotza alanbre-hesiak harrapaturik,
Bular guriak agerian,
  Lagunduko didan inor gabe, ni lilitxoa.

Une latzean malkoak atera ezinik
  Ilunaren agintzapeko egunetan,
Ortzi urrunean ostantza burrunbari,
  Itsasertzean neguko haizea goizaldean.

Arrosa artifizialaren hosto zuriak
  Izozturik, ezer sentitzeke,
Egun argitsu batean nesken bilkura,
  Guztiak nire aspaldiko adiskide.

Trapezioa = Poliedroa, baina
  Kokyu soinua dabil etengabe.

Gau beranduko euria

Verlaineren irudia

Euria gaur gauean ere antzina bezala
  Aspaldiko abestiak ari da kantari.
Etengabe, unagarri, gogaikarri.
  Nahi gabe ikusi dut Ver jaunaren gorputz tzarra,
Biltegien arteko pasabidetik doala.

Biltegien artean gomazko zirak diz-diz,
  Zohikatz pila miserablea iseka airez.
Eta estrata honen barrenean,
  Estrata honen barrenean bederen… etorkizuna
                xume.
Ordea xume izanik ere etorkizuna geroa izango da,
                ala?

Ez dut behar autorik
  Hain gutxi kaleko argirik.
Taberna atarietako argien begi ustelok, adi!
  Kimika urrunean burrundara batean dabil.

Udaberri hastapeneko haizea

Gaur dabilen haizea, urrezkoa
Haize handia, zilarrezko kaskabiloa
Gaur dabilen haizea, urrezkoa

Erregina koroatuaren antzera
Mahaira jarrita
Leiho zabalaren aurrean eseri naiz

Kanpoan dabilen haizea, urrezkoa
Haize handia, zilarrezko kaskabiloa
Gaur dabilen haizea, urrezkoa

Belar ihartuaren doinua, tristea
Ortzian kea noraezean
Lainotzen doa samur eta alai

Miruaren koloreko lur usaintsua
Arropa esekitzeko makila ortzian gora
Igotzen noan aldapa etzana da baina...

Neska gazteen kokotsak ote?
Muinoetako zuhaitz-adarrak lakarrak dira
Gaur dabilen haizea, urrezkoa...

Ilargia

Gaur ilargiak myoga gehiegi jan du.
Garbilekuko teilatupean zintzilikatutako biwa-
soinua, dirudienez, ez da entzungo,
Ez dago kare usainaz zertan beldurtu.
Zuhaixkak indartzen ari dira euren nortasuna,
Ahizpak lo gelditu dira, amak itxi egin ditu zur-sare
gorriztak!

Orain, balkoi gainean begiratzen badut,
Kobrezko txanpona dago erorita, edo domina da
agian?
Eguerdian Fumikori erori zaiona da.
Emango diot bihar.
Poltsikoan gorde eta ahaztuko zaidan beldur naiz,
ilargiak myoga gehiegi jan du eta.
Zuhaixkak indartzen ari dira euren nortasuna,
Ahizpak lo gelditu dira, amak itxi egin ditu zur-sare
gorriztak!

Begi urdinak

1. Udako goiza

Bihotz tristeari eguna argitu zaio,
    Bihotz pozkorrari eguna argitu zaio.
Ez!, ez!; zer da hau baina?
    Egunsenti triste hau, alajaina!

Begi urdinok ez ziren mugitzen,
    Mundua oro artean lo zegoen,
Hala “une hori” joan bazihoan,
    Ai, aspaldiko, hain aspaldiko zerak.

Begi urdinok ez ziren mugitzen,
    —Orain bai, baliteke zirkin bat egitea orain...—
Begi urdinok ez ziren mugitzen,
    Samin ziren eta eder!

Orain hemen nago argi horiaren itzalean.
Orduz gero nola dauden ez dakit...
Ai, “une hura” joan bazihoan!

Bortitz darion lurrun urdina bezala.

2. Neguko goiza

Orduz gero nola zegoen...
Hori nik ez nekien.
Dena den, goizeko aireportutik lainopean
Hegazkina desagertua da betiko.
Atzean hondar pila ankerra, belar txarrak eta hotz mina utzi ditu.
Hain goiz krudel, hutsalean ere
Jendearekin beti abegiz agertu beharra
Deitoragarri zait,
Baina hala ere,
Jendea zenbat eta irriberago,
Sentitu ohi da orduan eta nagusiago.
Eguzki-printzak laino artean diz-diz, antzigarra hostoetan urtzen,
Urrutiko etxeetan kukurruku oilarrak,

Ez lainoa, ez argia, ez antzigarra, ez oilarrak,
Ez dira jendearen bihotzean sartu,
Aldiz jendea etxeko mahaian eserita.

(Neu naiz aireportuan geratu den bakarra,
ostikoz jotzen dut Bat zigarro pakete hutsa.)

Hiru urteko oroitzapenak

Ataurreko oholtza eguteran zegoen,
bost kolore harturik erretxina lo,
kakiondo bat zegoen patioan,
eta mizpira koloreko gainazalean euliak burrunbari.

Pixontzi gainean, amaren besoetan
uzkitik xixare bat neukan dingilizka.
Xixarea mugitu egiten zen pixontzi barruan,
mugitu egiten zen, eta aho bete hortz utzi ninduen.

Ai!, ai!, ai!, hezurretaraino sartu zitzaidan ikara,
zergatik ez dakit baina oso beldurgarria zen,
negarrari eman eta,
tarte batez mainaka egon nintzen.

Ai!, ai!, ai!, hau beldurra hau!, hau beldurra hau!
—gelan isiltasuna zen gailen—.
Aldameneko etxea dantzan joana zen ortzira!
Aldameneko etxea dantzan joana zen ortzira!

Iparreko itsasoa

Itsasoan ikusten diren horiek
ez dira uhandreak.
Itsasoan ikusten diren horiek
uhinak dira, uhinak baino ez.

Iparreko itsas gainean ortzia lainoz,
azpian uhinak hortzak erakusten han-hemen
ortzia madarikatzen.
Arnegu azken bakoan.

Itsasoan ikusten diren horiek
ez dira uhandreak.
Itsasoan ikusten diren horiek
uhinak dira, uhinak baino ez.

Kanta lañoa

Pentsatzen hasita hain urrunera iritsi naiz baina,
hamabi urte nituela neguko arrats hartan,
portu gaineko zeruan entzuten zen sirena haren
lurruna
egun non ote da?

Laino artean ilargia,
sirena entzun nuenean
kikilduta kuzkurtu egin nintzen,
ilargia ortzian zen.

Zenbat urte joan ote da,
sirena haren lurrunari segika mozolo begiradaz
gelditu nintzen triste.
Garai hartan nintzen hura, egun non ote da?

Emaztea eta haurrekin nago orain.
Pentsatzen hasita hain urrunera iritsi naiz eta,
aurrerantzean, ez dakit noiz arte,
baina egingo naiz bizi…

Bizi egingo naiz baina,
igarotako gau eta egunak
hain ditut maite
ezen ez nagoela ziur bizitzen jarraitzeko izango
naizen gai.

Hala ere bizi naizen artean,
naizen naizenean
saiatuko naiz izaten ahalik eta zintzoen.
Baina kupitu egiten naiz neure buruaz.

Ondo pentsatuta,
azken finean eginahalak eginda,
eta iraganeko egunen eskasa sentitu arren
batzuetan,
nola edo hala moldatuko naizela uste dut.

Ondo pentsatuta erraza behar du izan,
azken finean gogo kontua da,
nola edo hala moldatu beste aukerarik ez da:
nola edo hala moldatu eta kito.

Hori da pentsatzen dudana baina,
hamabi urte nituela neguko arrats hartan,

portu gaineko zeruan entzuten zen sirena haren lurruna
egun non ote da?

Ilargipeko hondartza

Ilargipeko gauean botoi bat
zegoen ur bazterrean.

Hartu eta zertarako erabil nezakeen
ez nuen pentsatu asko,
baina han botata uzteak pena eman zidanez
mahukan gorde nuen.

Ilargipeko gauean botoi bat
zegoen ur bazterrean.

Hartu eta zertarako erabil nezakeen
ez nuen pentsatu asko baina
    ilargi aldera ezin nuenez jaurti,
    uhin artera ezin nuenez jaurti
mahukan gorde nuen.

Ilargipeko gauean jaso nuen botoia
hatz mamietan hartu eta bihotzean sartu zitzaidan.

Nola utziko nuen ba han botata
ilargipeko gauean jaso nuen botoia.

Berriz ere badatorren udaberria...

Udaberria berriz ere badatorrela diote
baina ni nago atsekabez.
Etorri badator udaberria, zertara baina?
Haurra ez da itzuliko.

Gogoan daukat joan den maiatzean
zoo batean zu besotan hartuta,
elefantea ikusita “mitxinoa” zenioen,
txoria ikusita “mitxinoa”.

Oreina erakutsi nizun azkenik,
beharbada haren adarrek liluraturik
ezer esateke geratu zinen begiak talo eginda.

Une hartantxe egon zinen zinez
munduaren argitasunaren muinean
zutik, begiak talo...

Ilargitea 1

Ilargia diz-diz
Ilargia diz-diz

Lorategi ertz bateko belardian
Dagoena gordean haur hila da

Ilargia diz-diz
Ilargia diz-diz

Hara, Testilis eta Aminta
Atera dira belardi gainera

Gitarra ekarri dute
Baina jotzeko asmorik ez

Ilargia diz-diz
Ilargia diz-diz

Ilargitea 2

O Testilis eta Aminta
Lorategira irten eta jostari dabiltza

Hau da hau udaberriko ilunabarra
Behelaino epela ere bada

Ilargiteak argiturik
Lorategiko jarlekuan eserita daude

Ondoan daukate gitarra
Baina joko dutenik ez dirudi

Belardiaz haratago bada oihana
Beltzean beltz ilunez min

O Testilis eta Aminta
Ahapeka ari dira hizketan

Oihanean ipurtargia bailitzan
Kukubilko dago haur hila

Herriko erlojua

Herriko erloju handia
ez zen sekula geratzen

Haren koadranteko zenbakiek
galdua zuten pinturaren distira

Gerturatuz gero
pitzadura txikiz ikusten zen josia

Horregatik ilunabarreko eguzkitan
kolorea zuen margula

Ordua jotzean
hasten zen arnasestuka

Ez nik ez beste inork ez zekien
jotzen ari zena zen koadrantea ala makina.

Gizon baten erretratua

1

Gizon pinpirin hark Europatik itzuli berri
artean ileari olio berdea ematen zion, zeukan
adinarekin.

Gauero kafetegi batera joan eta
jabearekin hizketan errukia ematen zuen.

Hil zela jakin nuenean are errukarriago begitandu
zitzaidan.

2

Desilusioaren kolorea altzairuaren kolorea.

Ilearen distira eta lanpararen urre kolorea
ilunsentian,
lorategira irekita zegoen atetik

atera zen kanpora.

Lepondoko ilea moztu berri, eskumuturrak
eta gorputz atal guztiak urduri,
eta hotz.

Ate irekitik
sartzen zen etsipena
gupidarik gabe haizearekin batera.

Irakurketa, maitasun isila,
te beroa... horiek guztiak desagertu egin ziren
arrastiriko ortziaz batera, haizeaz batera.

3

Neska hura
horma barruan sartu zen.
Eta gizona gelan bakar-bakarrik
zapiaz mahaia garbitzen ari zen.

Chomonkyoko arroila neguan

Chomonkyoko arroilan behera bazihoan ura.
Egun hotz-hotza zen.

Jatetxe batean nengoen.
Kopa bat ari nintzen edaten.

Ni beste
inor ez zegoen.

Ura, arima balu bezala,
isuri eta isuri jarioan ari zen.

Mandarina antzeko arrastiriko eguzkiak
halako batean zubiko kalostra argiztatu zuen.

Ai! Une hori horrela agitu zen:
egun hotz-hotza zen.

Yoneko

Hogeita zortzi urteko neska hark
biriketako gaitzak erasanda mehe-meheak zituen
zangosagarrak.
Makal-zuhaitza bezain zutik zegoen
oinezkorik gabeko espaloi ertzean.

Neskak Yoneko zuen izena.
Udan musua zikina zuela ematen zuen baina
garbia izaten zuen neguan eta udazkenean.
—Ahula zuen ahotsa

Hogeita zortzi urteko neska hura
ezkontzen zenean
sendatuko zela uste nuen… eta hori pentsatzen
so egiten nion aldian behin.

Baina berari ez nion esan behin ere.
Ez zaila zitzaidalako esatea,
ez lur jota utziko nuen beldur nintzelako,
zergatik ez dakit baina hori inoiz aipatu gabe geratu
nintzen.

Hogeita zortzi urteko neska hura
espaloian zegoen makal-zuhaitza bezain tente,
arratsaldea zen euria atertu berri.

—Haren ahots ahula entzun nahiko nuke
berriz...—

Udaberriko eguna: gogoeta eroak

1

Maite duguna hiltzen denean
geure buruaz beste egin beharra dago.

Maite duguna hiltzen denean
ez dago beste aukerarik.

Baina hala ere geure karmaren aginduz,
biziraun beharrean aurkitzen bagara
guztion onerako bizitzen jarraitzea da bidea,
guztion onerako bizitzen jarraitzea da bidea.

Maite genuena hil egin denez,
zinez eta benetan hilik
hura berreskuratzerik ez dagoenez,
harengatik beragatik
guztion onerako jarraitu egin behar da bizitzen,
guztion onerako jarraitu egin behar da bizitzen.

2

Guztion onerako bizitzeko gertu banago ere
ez dakit ezer berezirik egiten.

Horregatik liburua bada inoiz baino sakonago
irakurri.
Horregatik pertsona bada inoiz baino zintzoago
hartu.

Pauso onean paseatzen
gogo betez lastoarekin lokarriak eginez...

Gisa honetan jostailuzko soldadutxoa dirudit.
Gisa honetan egunero igandea dela dirudi:

tenpluko eguteran astiro oinez
ezagun batekin topo eginez gero irriz

agure karamelu-saltzaileari lagunkoi
esku-beteka jana emanez usoei

eguzkiaren begitik ihesi eguratsean murgildurik
lurra, belarra eta zuhaitzei berriro so eginik...

Goroldioa hain hozkirri
hitzik gabe gaurko egunaren ederra zelan adierazi!

Tenplura datozenak trumilka datoz
baina ni ez nau aztoratzen ezerk.

(Bizitza benetan lipar bateko amets
gomazko puxika bezain eder)

Zerura igo distira egin eta desagertu betiko...
“Kaixo, arratsalde on, zer moduz?”

“Aspaldikoa!, zelan zabiltzate?
Te bat hartuko dugu hor nonbait!”

Kafetegian aldarte oneko sartu arren
ez daukagu hizketarako gai larregi.

Denbora emateko tabakoa pipatuz
adierazi gabeko erabakia hartu dut:

“Kanpoan giro dago!
Tira ikusi arte ba, eta goraintziak emazteari!,

etxera iritsitakoan, mesedez idatzi!
Eta hobe edaten ez baduzu gehiegi...”

Zalgurdiak igarotzen dira, trenak ere igarotzen dira:
bizitza zinez eztei-soinekoz jantzi andregaia bezalakoa da.

Distiratsu eder eta herabe ageri da
baina solasean hasiz gero ez ote gogaikarri?

Hala ere liluratu egiten gaitu ordea
bizitza zinez eztei-soinekoz jantzi andregaia bezalakoa da.

Hala ere liluratu egiten gaitu ordea
bizitza zinez eztei-soinekoz jantzi andregaia bezalakoa da.

Orduan denok,
sobera poztu gabe sobera tristatu gabe,
gogo onez bostekoa luza diezaiogun elkarri!

Azken finean zintzotasuna
falta dugula jakitun,

lagunok, guztiok
gogo onez bostekoa luza diezaiogun elkarri!

Igelaren kanta

Ortziak lurra estalirik...
menturaz urmaela dago lur gainean. Urmael horretan
gaur gauez, gaur gauean soilik, igela korroka ari...
Zer dio baina korroka horrekin?

Kanta hori ortzitik etorri
eta ortzira joango da berriz?
Ortziak lurra estalirik,
ur gainean labainka doa igelaren kanta.

Herri hau umelegia izanagatik,
gure bihotz akituarentzat
etxeko habeek dirudite sikuegi,

eta burua dugu astun, sorbaldak zurrundurik.
Hala ere, ilundu orduko igela korroka hasten da,
eta ur gainean labainka hor doa hodei beltzetarantz
haren kanta.